



JABETUZ

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa.

Programa de formación a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA. CURSO BÁSICO DE FORMACIÓN

1.- AURKEZPENA: OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA, ON LINE (85 ordu)

Programa honen bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

JABETUZ programa honetan planteatzen dugun ikastaroa oinarrizkoa da, on line egitekoa, 85 ordukoa. Programa horrekin, "Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundeen arteko II. Akordioa"n jasotako adostasun-ildoak sendotu nahi ditugu, eta, batez ere, akordio horren printzipio orokorretako bat indartu nahi dugu: emakumeen ahalduntzea.

Prestakuntza-modulu bi proposatzen dizuegu: bata, sarrerakoa, eta, bestea, oinarrizkoa; bakoitzak bere unitate didaktikoak izango ditu. Sarrera-moduluan, esku hartzeko irizpideak homogeneizatu nahi dira, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten erakunde guztientzat.

Oinarrizko moduluan, gutxieneko ezagutza batzuk eskaintzen dira: oso oinarrizkoak izanagatik, nahitaezkoak dira bihar-etziko prestakuntza-planteamendu zehatz eta espezifikoko batzuetarako oinarri izateko.

2.- PROGRAMA ETA EGUTEGIA

Ikastaroak bi modulu ditu, eta 6 unitate didaktiko:

SARRERA MODULUA

- **1. unitatea:** Esku-hartzearen irismena
Tutorea: Norma Vázquez García
Hasiara eguna: otsailaren 14a
Amaiera eguna: otsailaren 27a
- **2. unitatea:** Harrera
Tutorea: Norma Vázquez García
Hasiara eguna: otsailaren 28a

Amaiera eguna: martxoaren 13a

OINARRIZKO MODULUA

- **3. unitatea:** Berdintasun eza eta emakumeen aurkako indarkeria.
Tutorea: Maitane Urbieto Iceta eta Malu Ziordia Fernández de Garaialde
Hasiara eguna: martxoaren 14a
Amaiera eguna: martxoaren 27a
- **4. unitatea:** Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudia.
Tutorea: María Naredo Molero.
Hasiara eguna: martxoaren 28a
Amaiera eguna: apirilaren 10a
- **5. unitatea:** Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendua.
Tutorea: Ana Martín Ramos.
Hasiara eguna: apirilaren 11
Amaiera eguna: maiatzaren 1a
- **6. unitatea:** Emakumeen ahalduntze pertsonala bultzatzea eta laguntzea, profesionalen esku-hartzearen zati moduan.
Tutorea: Sara Ibarrola Inchusta
Hasiara eguna: maiatzaren 2a
Amaiera eguna: maiatzaren 15a

3.- IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

Unitate didaktikoaren osagaiak:

- Aurkezpena eta unitate didaktikoaren laburpena.
- Dokumentu tematiko bat (PDF batean) eta tutoreek egindako proposamen teorikoa.
- Jarduera-proposamen bat, ikastaroan parte hartzen guztiek banaka egin beharrekoa.
- Ebaluazio-test bat.
- Material osagarriak: web espezializatuetakako estekak izan daitezke, eta interesgarriak izan daitezkeen beste dokumentu eta material batzuk.
- Gaiari buruzko bibliografia.
- Terminoen glosarioa.
- Tutorearen balorazio-inkesta bat, unitate didaktiko bakoitzaren amaieran bete beharrekoa.
- Unitate didaktikoaren foroa: tutoreak dinamizatuko du, ikasleek aurkeztutako gaietan parte har dezaten bultzatzeko.

Ikastaroa gainditzeko, beharrezkoa da:

- Unitate didaktiko bakoitzeko material espezifikoak eta material osagarria irakurtzea.
- Unitate didaktiko bakoitzean proposatutako ebaluazio-**testa** egitea eta gainditzea.
- Tutoreek unitate bakoitzerako proposatutako **jarduera** osatzea.
- Halaber, bi foroetako batean (gutxienez) parte hartu beharko da, oharrak edo berriak bidaliz.

Unitate didaktiko bakoitzerako 15 ordu behar direla jotzen da (5. unitaterako izan ezik, 10 ordukoa baita). Hala ere, gehiago landuz gero, etekin hobea aterako zaio ikastaroari, zalantzarik gabe.

Ikastaro hau egin eta ezarritako gutxieneko helburuak gaindituz gero, Emakunderen ziurtagiri bat lortuko da, azken ebaluazioa bete eta bidali ondoren (nahitaez egin beharreko ebaluazioa).